ELGOIBARKO UDALARENTZAT BEREZ GARBITZEN DEN KOMUN BATEN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA ABIAN JARTZEA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

PLIEGO DE CLAUSULAS TECNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y PUESTA EN MARCHA DE UN ASEO AUTOLIMPIABLE PARA EL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.

1.-XEDEA

Kontratu honen xedea da berez garbitzen den komun bat hornitzea, muntatzea, abian jartzea Komuna gizon eta emakumeentzat izango da, baita ezintasuna duten pertsonentzat ere. Bi plazako kanpoko pixatokiarekin, garbiketa automatikoarekin eta Udalak adierazitako lekuan jarriko da.

Kontratuaren baitan sartzen da urtebeteko nahitaezko berme aldiari dagozkion mantentze prebentiboko eta zuzentzaileko lanak egitea, II. Eranskinean adierazitako lanak oinarri hartuta.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto el suministro, montaje, instalación y puesta en marcha de un aseo autolimpiable de utilización mixta y minusválidos con un urinario exterior de dos plazas, con lavado automático, en la ubicación señalada por el Ayuntamiento de Elgoibar.

Se incluye la realización del mantenimiento preventivo y correctivo correspondiente al período de garantía obligatoria de un año en base a los trabajos indicados en el Anexo II

2.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratua dela-eta, gehienez ere aurreikusi den gastuaren aurrekontua 54.000,00 eurokoa da. Uste izango da, prezioaren barruan, ondokoak sartuta daudela: balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa); garraioa; instalazioari eta abian jartzeari dagozkion gastuak; arielen, lizentzien, aseguruen eta era guztietako baimenen kostuak; eta halaber, enpresak eskainitako prestazioa betetzeko egin behar dituen gainerako gastuak.

Obra zibila Udalaren kontura izango da erabat, baldin eta beharrezkoa bada.

2.- PRESUPUESTO

El presupuesto de gasto máximo previsto para el contrato es de 54.000,00 €, en el que se entenderán incluidos el impuesto sobre el valor añadido (IVA), el transporte, gastos de instalación y puesta en marcha, costes de los aranceles, licencias, seguros, autorizaciones de todo tipo, y demás gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento de la prestación ofertada.

Será a cargo del Ayuntamiento exclusivamente la obra civil, en caso de que esta fuera necesaria.

3.- EXEKUZIO EPEA

Kontratu hau exekutatzeko guztizko epea hamabi (12) astekoa izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratista berandutzan erori dela uste izango da, aipatutako epea gainditzen badu; horiek horrela, Administrazioak ez du, aurrez, epea betetzeko eskaera egiteko beharrik izango.

Hornidura Udalak adierazitako lekuan eman eta

3.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución del objeto del presente contrato será de doce (12) semanas contadas a partir del siguiente día al de la formalización del contrato.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

El suministro deberá entregarse e instalarse en el

instalatu beharko da.

lugar indicado por el Ayuntamiento.

4.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

Komuna egokitu egin beharko zaio Elgoibarko Udalak proposatutako lekuan egingo duen azpiegiturari, eta guztira, honako neurri hauek izango ditu: 5,25 m luze eta 2,80 m zabal.

Erabilitako materialak kalitate gorenekoak izango dira, iragazgaitzak, xurgatzaileak ez direnak, bandalismoaren aurkakoak, higaduraren aurkakoak, grafitien aurkako tratamendua dutenak, solidoak eta kanpoko agenteek (garbitzeko eta desinfektatzeko erabiltzen diren azidoek eta alkaliek ere bai) eta agente atmosferikoek eraldatzen ez dituztenak. Materialak erabat homologatutakoak izango dira, eta neurri espezifiko guztiak bete beharko dituzte.

Egiturek ez dituzte erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen irtenuneak, ertzak edo kantoi zorrotzak izango. Beraz, komunaren diseinuak ez du txoko, ertz edo kantoi zorrotzik izango.

Komun barruko gelak indarrean dagoen irisgarritasunari buruzko araudia betetzen duen biraketa diametroa izan beharko du. Era berean, sartzeko ate bat izango du, gutxienez, 90 cm-ko erabilera duena. Ezinduek erabiltzeko modukoa izango da, eta indarrean dagoen legediak berariaz ezarritako xedapen guztiak bete beharko ditu.

Segurtasun eta erresistentzia maila funtsezkoa izango da, eta bereziki, talkekiko, korrosioarekiko eta gradiente termikoarekiko erresistentzia izango dira kontuan.

Udalak eskubidea izango du aurkezten diren laginak aztertzeko edo laborategi ofizialei azterketa horiek egin ditzatela agintzeko, eta gutxieneko kalitatetzat hartuko du eskaintzak kontuan izanik onartu dena. Hori dela eta, lizitatzaileak Udal Administrazioak eska litzakeen enbalaje, seinaleztapen eta errotulazio mota eta tamaina guztiak erabili beharko ditu

Jendearentzat izango diren komunaren guneak eta elementuak edo egiturak era eraginkorrean banatu beharko dira, azken horietara baimena duten langileak bakarrik sartu ahal izan daitezen.

4. CARACTERISTICAS TÉCNICAS

El aseo deberá adaptarse a la infraestructura realizada previamente en el lugar propuesto por el Ayuntamiento de Elgoibar, y tendrá una dimensión total máxima de 5,25m de largo y 2,80m de ancho.

Los materiales empleados serán de primera calidad, impermeables, no absorbentes, antivandálicos, resistentes al desgaste, con tratamiento antigrafitis, sólidos e inalterables por agentes externos (inclusive ácidos y álcalis utilizados habitualmente en la limpieza y desinfección) y atmosféricos y totalmente homologados, debiendo cumplir todas las normas específicas.

Las estructuras no deberán presentar salientes, aristas o cantos vivos que puedan representar un peligro para el/la usuario/a. Por tanto, el diseño del aseo no deberá tener rincones ni esquinas, ni bordes cortantes.

El habitáculo deberá contar con un diámetro de giro que cumpla la normativa de accesibilidad vigente al respecto. Así mismo, contará con una puerta de acceso de cómo mínimo 90 cm de uso. Deberá ser apto para ser usado por minusválidos, cumpliendo todas las disposiciones establecidas al efecto por la legislación vigente.

El grado de seguridad y resistencia será fundamental, teniendo en cuenta especialmente aspectos como la resistencia al impacto, a la corrosión y al gradiente térmico

El Ayuntamiento se reserva el derecho a analizar o encargar en laboratorios oficiales las muestras que se presenten, considerando como mínima la calidad aprobada a la vista de las ofertas. A tal efecto, el licitador estará obligado a utilizar las clases y tamaños de embalajes, señalizaciones y rotulaciones que la Administración Municipal pudiera exigir.

Los espacios del evacuatorio destinados al público y a los elementos o estructuras deberán estar separados de manera eficaz, de modo que a estos últimos sólo tenga acceso el personal autorizado.

Jendearentzat izango den guneak, gutxienez, honako elementu hauek izango ditu:

- Hormak eta zorua gresitez estaliak. Eskaintzan komunaren kanpoaldea estaltzeko material desberdinak proposatu behar dira, jarri behar diren inguruarekiko integrazioa erraztuko dutenak. Udalak egokiena dena aukeratuko du.

- Egiturek ez dituzte erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen irtenuneak, ertzak edo kantoi zorrotzak izango.
- Kanpoaldean, komunaren albo batean, 2 pixatoki eta manpara babeslea izango dituen kabina.
- Hormigoizko estalkia, iragazgaiztua eta euri ura husteko sistema izango duena.
- Argi artifiziala
- Larrialdietarako argia
- Berokuntza, termostato bidez erregula daitekeena.
- Etengabeko aireztapen erauzlea.
- Paperontziak komuneko paper biodegradagarriarentzat.
- Altzairu herdoilezinezko esekitokia.
- Altzairu herdoilezin leundu haustezinez egindako ispilua.
- Altzairu herdoilezinezko jarlekua eta estalkia dituen komuna, berez garbitzen dena, eta erabiltzen den bakoitzean, berez desinfektatzen eta garbitzen dena. Jarlekuak abaildura automatikoa eta banan-banakako garbiketa izango ditu.
- Hainbat irteera zorua presiodun urez garbitzeko.
- Hainbat irteera jarlekua presiodun urez garbitzeko.
- Urak desinfektatzailea eta desodorantea izan beharko ditu.
- Altzairu herdoilezinezko txorro automatikoa, eskuak azpian jarrita funtzionatzen duena.
- Aire berodun esku-lehorgailua, eskuak azpian jarrita funtzionatzen duena.
- Altzairu herdoilezinezko euskarria, elbarritasuna eta desgaitasuna dutenentzat.
- Altzairu herdoilezinezko atea, blindatua, bandalismoaren aurkakoa, altzairu herdoilezinezko akabera, isolamendu termikoa eta akustikoa, gauerako sarraila elektroimanduna eta ordutegi programagarria dituena.
- Zoruaren estaldura irristagaitza izango da, nahiz eta azalera bustita egon.
- Komuna libre, okupatuta eta zerbitzutik kanpo dagoela adierazten duen kanpoko adierazgailua, argi gutxiko orduetan irakurri ahal izango dena.

El espacio destinado al público contará como mínimo con los siguientes elementos:

- Revestimiento de paredes y suelo en gresite o cerámica. En la oferta se deben proponer diferentes materiales de recubrimiento exterior del módulo aseo que faciliten su integración en el entorno donde van a colocarse. El Ayuntamiento optará por el que considere más adecuado.
- Estructura sin salientes, aristas o cantos que puedan representar un peligro para l@s usuari@s.
- Cabina con sistema de 2 urinarios exteriores en uno de los laterales del aseo y mampara protectora en acero inoxidable.
- Cubierta de hormigón impermeabilizada con sistema de evacuación de agua de lluvia.
- Luz artificial
- Luz de emergencia
- Calefacción regulable por termostato.
- Ventilación extractora continua.
- Papeleras para papel higiénico biodegradable
- Colgador de acero inoxidable
- Espejo realizado en acero inoxidable pulido irrompible
- Inodoro con asiento y tapa en acero inoxidable, auto lavable, con auto desinfectado y secado después de cada uso. El asiento tendrá abatimiento automático y limpieza individualizada.
- Lavado del suelo desde diferentes salidas de agua a presión.
- Lavado del asiento mediante diferentes salidas de agua a presión.
- El agua deberá de contener desinfectante y desodorante.
- Grifo de acero inoxidable automático con funcionamiento a la exposición.
- Seca manos de aire caliente, con funcionamiento a la exposición.
- Barra de apoyo de acero inoxidable para minusválidos e incapacitados
- Puerta de acero inoxidable, blindada, antivandálica, acabada en acero inoxidable, y con aislamiento térmico y acústico y cerradura con electroimán para la noche, con horario programable.
- Revestimiento del suelo antideslizante pese a que la superficie esté mojada
- Indicador exterior de libre, ocupado y fuera de servicio, con un dispositivo de iluminación que permita su lectura en horas de poca luz.
- Urinario exterior de dos plazas realizado en acero inoxidable auto lavable, activado por presencia, con mampara protectora.

- Kanpoaldeko pixatokia, bi plazakoa, berez garbitzen den altzairu herdoilgaitzez egindakoa, erabiltzailea aurrez aurre dela aktibatuko dena eta manpara babeslea izango duena.

Instalazioak segurtasunerako gailu mekanikoa izan beharko du, garbiketa mekanismoa abian jar ez dadin, erabiltzaileak barruan dauden bitartean.

La instalación deberá contar con un dispositivo de seguridad que impida el accionamiento del mecanismo de limpieza mientras los usuarios se encuentran en el interior.

Gune honen konfigurazioaren diseinuak eta materialek ahalik eta kontserbazio eta garbiketa egokiena bermatu beharko dute, eta eskatutako segurtasun mailak mantendu beharko dituzte.

La configuración de este espacio deberá contar con un diseño y materiales tales, que faciliten al máximo su adecuada conservación y limpieza, manteniendo los niveles exigidos de seguridad

Ixteko eta segurtasunerako gailuek honako ekipamendu hau izango dute:

Los dispositivos de cierre y seguridad contarán con el siguiente equipamiento:

- Instalazioa irekitzeko eta ixteko ordutegia programatzeko erlojua, programazio aldakorrerako aukera emango duena.
- Komunak libre, okupatuta edo zerbitzutik kanpo dagoen adierazteko adierazgailua izango du, baita argiztatzeko gailua ere, argi gutxi dagoenean irakurri ahal izango dena. Halaber, atea ixteko gailu automatikoa izango du.
- Erabiltzaileak komuna erabili eta utzi ondoren, era automatikoan eta eraginkorrean itxi beharko da; eta kanpoaldean, ikusteko moduan, adieraziko da "komuna okupatuta dagoela", garbitzen ari den bitartean, edo "komuna libre" dagoela, behin garbiketa bukatu ostean.
- Komunaren barruan, auto-garbiketa sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa.
- Edozein arrazoi dela medio, komun barruan harrapatuta gelditu diren pertsonak erreskatatzea ahalbidetuko duen segurtasun sistema. Sistema honek, funtzionatu ahal izateko, ez du beharko lanialdietan funtzionatzeko bermerik emango ez duen bateriarik, pilarik edo bestelako elementurik.
- Urak presiorik izan ezean, komuna automatikoki ixteko sistema.
- Alarma akustikoa komuna erabiltzeko denboraren muga adierazteko.
- Zerbitzuen kontagailua.
- Behar adinako aireztapena, naturala edo artifiziala.

- Reloj programable para horario de apertura y cierre de la instalación, con posibilidad de programación variable.
- Indicación de evacuatorio libre y ocupado o fuera de servicio con dispositivo de iluminación que permita su lectura con poca luz, así como cierre automático de la puerta
- Utilizada la cabina y abandonada por el usuario, la cabina deberá cerrarse de forma automática y eficaz, indicando en el exterior, de forma visible, si se encuentra en "servicio ocupado" mientras dura la limpieza, o en "servicio libre", una vez acabada la misma.
- Información en el interior de la cabina sobre el funcionamiento del sistema de auto limpieza.
- Sistema de seguridad que permita el rescate de personas atrapadas en el interior de la cabina por cualquier causa. El sistema no deberá depender para su funcionamiento de ningún elemento tal como baterías, pilas o cualquier otro elemento que no garantice su funcionamiento en caso de emergencia
- Sistema de cierre automático del aseo en caso de falta de presión de agua
- Alarma acústica para tiempo límite de uso.
- Contador de servicios.
- Ventilación suficiente, natural o forzada.

Makineriarentzat, mantentze eta kontrol ekipamenduentzat, garbiketa produktu eta desinfektatzaileentzat eta abarrentzat izango den guneak, gutxienez, honako hauek izan beharko ditu:

El espacio dedicado a la maquinaria, equipos de mantenimiento y control, productos de limpieza y desinfectantes, etc, dispondrá, al menos de:

- Zirkuitu hidraulikoa
- Itzuleren aurkako balbula eta ura mozteko giltza orokorra.
- Presiozko motoponpa.
- Uraren instalazioaren iragazkia eta sifoi-potea.
- Likido desinfektatzailearentzako, desodorantearentzako, eta abarrentzako deposituak.
- Likido desinfektatzailearentzako eta xaboiarentzako dosifikagailua.
- Berokuntza elementua, jarlekua lehortzeko eta komun-kabinaren barrualdean konfort tenperatura mantentzeko erresistentzia eta turbina izango dituena.
- Egindako zerbitzuen kontagailua.
- Komun-kabinaren barrualdean egoteko denbora muga ohartarazteko txirrin programagarria.
- Taula elektronikoa, programagailua eta babeserako elementuak izango dituena.
- Komuna "ixteko-irekitzeko" ordutegiaren programagailua.
- Komun-kabinaren barrualdetik lokal teknikorako sarbidea.
- Ura mozten baldin bada, sarrerako atearen blokeo automatikoa (barrutik irekitzeko aukera).

Herritarrentzako diren eta hizkuntza idatzia baliatuko duten informazio oharpen guztiak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan adierazi beharko dira, betiere, Udalak baimenduko duen itzulpenaren bitartez. Kabinek, gainera, kanpoaldean, Udalaren plaka izan beharko dute armarri ofizialarekin, Udalak baimentzen duen diseinuaren arabera.

5.- ESKAINTZA TEKNIKOEN EDUKIA

Proposamenak eskainitako komunen instalazioaren, errendimenduaren eta prestazioaren balorazio osoa egin ahal izateko adinako helmenarekin eta edukiarekin zehaztuko dira:

Gutxienez, honako informazio hau izango dute:

- Eskainitako komunak osoki ulertzeko behar adinako xehetasun maila izango duen dokumentazio grafikoa eta idatzizkoa.
- Komun moduluaren unitatea osatuko duten elementuak, komuna egiteko erabili diren materialak eta plegu honetan eskatutakoarekin bat datozenak, baita indarrean dagoen eta ezarri beharrekoa den

- Circuito hidráulico
- Valvula anti-retorno y llave de corte general.
- Motobomba de presión
- Filtro de instalación de agua y bote sifonico.
- Depósitos para líquidos desinfectantes, desodorante, etc.
- Dosificador para líquido desinfectante y jabón.
- Elemento de calor con resistencia y turbina para aire caliente que seque el asiento y mantenga la temperatura de confort en el interior de la cabina-aseo.
- Contador de servicios realizados.
- Timbre avisador programable para limitar el tiempo de permanencia en el interior de la cabina-aseo.
- Tablero electrónico con programador y elementos de protección
- Programador de horario de "cierre-apertura" de la cabina.
- Acceso al local técnico desde el interior de la cabina-aseo
- Bloqueo automático de la puerta de acceso (con posibilidad de apertura desde el interior) en caso de corte de suministro de agua.

Todas las indicaciones de información destinadas al público que utilicen el lenguaje escrito deberán expresarse en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, mediante traducción que a tal efecto autorice el Ayuntamiento. Las cabinas deberán contar, además, en el exterior, con placa del Ayuntamiento con el escudo oficial conforme al diseño que autorice la Administración.

5.- CONTENIDO DE LAS OFERTAS TÉCNICAS

Las propuestas se detallarán con el alcance y contenido necesarios para que sea viable la completa valoración de la instalación, rendimiento y prestaciones de los aseos ofertados.

Incluirán, al menos, la siguiente información:

- Documentación gráfica y escrita con suficiente grado de detalle para la completa comprensión del aseo ofertado.
- Elementos que constituyen la unidad de módulo-aseo, materiales en que está realizado y que correspondan con lo solicitado en este pliego, así como la conformidad de los elementos y materiales

araudiarekin bat datozen elementuak eta materialak ere.

- Guztiz instalatzeko baldintzak.
- Abian jarri bitartean egin beharreko probak, saiakerak eta egiaztapenak.

Proposamena aurkezteak esan nahi du arestiko ataletan adierazitako helburuak eta edukia onartzen direla. Dena dela, lehiatzaileek atal horietan adierazi ez diren arloak proposatu ahal izango dituzte, baldin eta haien xedeak hobeto betetzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen badituzte.

con la normativa en vigor aplicable.

- Condiciones para su completa instalación
- Pruebas, ensayos y verificaciones a realizar durante la puesta en marcha

El hecho de presentar una proposición supone la asunción de los objetivos y contenido expresados en los apartados anteriores. No obstante, los concursantes podrán proponer aspectos no expresados en dichos apartados por estimarlos necesarios o convenientes para un mejor cumplimiento de sus fines.

6.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

- Eskainitako prezio hoberena: gehienez ere, 45 puntu.
- Eskaintzaren eta diseinuaren kalitate teknikoa: gehienez ere, 30 puntu.
- Mantentze lanen proposamena: gehienez ere, 16 puntu.
- Berme aldia luzatzea: gehienez ere, 3 puntu.
- Exekuzio epea: gehienez ere, 3 puntu.
- Ordezko piezak hornitzeko epea luzatzea: gehienez ere, 3 puntu.

6.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

- Mejor precio ofertado: hasta 45 puntos
- Calidad técnica de la oferta y diseño: hasta 30 puntos.
- Propuesta de mantenimiento: hasta 16 puntos
- Ampliación del período de garantía: hasta 3 puntos.
- Plazo de ejecución: hasta 3 puntos.
- Ampliación del plazo de suministro de las piezas de repuesto: hasta 3 puntos.